

berriak

Triforio

-tik



Ondarea babesteko nanoteknologian aditu-talde bat Santa Marian izan da

Nano-Cathedral proiektuaren helburua da ondarearen babesean nanoteknologia erabiltzea, eta horren barruan, lantaldeak beste bilera bat egin du urtarrilean Vitoria-Gasteizen. Santa Maria izan zen bileraren agertokia. Izan ere, hor bildu zituen bere bidaiakideak, Pisa, Viena, Kolonia eta Ganteko katedraletako ordezkariak, baita Osloko Operako ordezkariak ere –ekimenean ere parte hartzen duen eraikin moderno bakarra–.

Topaketan zaharberritzaileak, ikertzaileak, irakasleak eta ondarearen gaineko interesdunak hurbildu ziren. Bi egunen baitan, azken hilabeteetan garatutako aurrerapenak partekatu zituzten, eta taldeak hurrengo topaketa zehaztu zuen, Italian udaberrian egiteko.



Gasteizen jatorria

Ismael García, UPV/EHUko Erdi Aroko Historiako doktore eta arkeologoak, Gasteiz y su hinterland. Las claves que han guiado mis investigaciones sobre la evolución de Vitoria durante la Edad Media hitzaldia emango du otsailak 14ean, asteazkenean. García oso lotura estua dauka Santa Maria katedralarekin, hain zuzen ere tenpluan indusketak egin zituen taldeko kide izan baitzen, eta aurkeztu berri duen doktorego-tesiari buruz hitz egingo du. Izan ere, hiriaren jatorriari buruz eta XI. eta XV. mendeen artean hiriak izan zuen bilakaerari buruz egin dituen ikerketak laburbildu ditu tesi horretan.

Europa Kongresu Jauregiko Gasteiz aretoan egingo da hitzaldia, 19:30ean. Sarrera doakoa izango da, aretoa bete arte.



Europaren egungo papera, hitzaldi-ziklo berri baten oinarria

Santa Maria Katedrala Fundazioak, Teologiako Fakultateak eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak beste hitzaldi-ziklo bat antolatu dute Europak gaur egun duen paperari buruz askotariko kultura-adierazpenen bidez: 'Cultura y Fundamentos de Europa /Kultura eta Europako oinarriak'. Iaz, Erromako Itunaren 50. urteurrena oroitu zen, horixe izan baitzen Europar Batasunaren abiapuntua.

Zalantzarik gabe, hari askok ehundu zuten Europako historia, baina kultura izan zen prozesu horren elementu nagusietako bat. Premisa horrekin, Europak egun duen paperari buruzko hausnarketa bultzatu nahi dute hiru erakundeek.

Antonio Altarriba idazle, nobelagile eta EHuko literatura frantseseko katedraduna izan zen urtarrileko lehenengo hitzorduko protagonista.

Beste lau hitzorduetan eta maiatzera arte, Europako kulturaren gainean duten ikuspegiaren berri emango digute beren gaitasun-eremuan lehen mailakoak diren pertsona ospetsuek, kulturaren askotariko adierazpenetatik igarota: literatura, musika, zinema, artea, etika, arkitektura, zientzia, erlijioa eta abar. Hitzaldiak hiriburu arabarreko Europa biltzar-jauregiko Micaela Portilla aretoan egingo dira.



Hurrengo hitzaldiak



Otsailak 21- 19:30etan


'El largo y sinuoso camino', Javier González de Durana, arte-arloko kritikoa, unibertsitate-irakaslea eta museo-zuzendaria

Martxoak 21 - 19:30etan

'Hecho religioso y fundamentos de Europa', Melchor Sánchez de Toca apaiza, kulturaren eta fedearen arteko elkarriketari buruzko hainbat artikulua eta lanen egilea.

Bizitzarako margoak Andetxan

Vitoria-Gasteiztik hamar kilometro pasatxora, Andetxako elizak distira osoarekin eskaintzen du 'Bizitzarako margoak', Xabier Egañaren mural-proiektua. Azken bost urteetan artistak kolorea eman dio San Miguel elizaren zentimetro bakoitzari, XVIII. mendearen bigarren erdian eraikitako eraikuntza eremu espresionista bihurtuz.



Lanerako erreferentziatzat hartu ditu Picasso, Munch, Gunter Grass edota martxoaren 3ko gertakariak, eta kolore biziez osatutako estetika abangoardista bat izan da emaitza. "Nire bizitza ametsen bila doan erromesaldi bihurtu da". Esaldi hori luzatu zien Xabier Egañak urtarrilaren 27ko inaugurazioan erakunde askotako ordezkariari, prozesuaren zerizana laburbiltzeko.

Santa Marian bezalaxe, lanak abian izan diren bitartean Obretan eta Irekia martxan jarri zen modu berean, artistak margotzeko erabiltzen zituen aldamioren azpian tenplua bisitatzeko aukera ematen zen.